

Usurbilgo Udala

2020KO IRAILAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez da bertaratu: Carlos Pérez Fraisoli.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko irailaren 24ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udaltza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2020/06/25EKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2020ko ekainaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO UZTAILAREN 13TIK ABUZTUAREN 31RA (2020/521-2020/670).

Alkatetzak 2020ko uztailaren 13tik abuztuaren 31ra bitartean (2020/521-2020/670) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- LASARTE-TXIKIERDI BIZIKLETA ETA OINEZKOENTZAKO BIDEA EGITEKO PROIEKTUA, 2. FASEA (2. IBILBIDEA: DONOSTIA-MUTRIKU). ALKATEAK TARTEKATUTAKO ERREKERIMENDUA BERRESTEA.

Alkateak azalpenak eman ditu. Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 28an bidegorri zati horren proiektua dela-eta hartutako bi erabakiren berri izan zuten Udalean. Alde batetik, proiektu horri dagokion espedientea onartzea eta, bestetik, bidegorri zati hori gauzatzeko eta finantzatzeko Foru Aldundia, Lasarteko Udala eta Usurbilgo Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmen akordioa onartzea.

Dokumentu horiek aztertu ondoren, beharrezkoa ikusi zutela dio errekerimendu bat egitea baina ez proiektu horren aurka daudelako, baizik eta hitzarmen horretan jasotzen den eduki batzuk argitzea komenigarri iruditzen zaielako. Eskatzen dutena da hitzarmeneko pasarte batzuen erredakzioa aldatzea.

Jarraian errekerimendu horren zergatia azaldu du. 2019ko urtarrilean proiektu hau onartu zenean, Usurbilgo Udalak proiektuari alegazio bat aurkeztu ziola adierazi du. Momentu horretan Zapategi eremuaren antolamenduaren arau aldaketa bete-betean zeudenez, alegatu zena izan zen arauen aldaketa behin betikoz onartu arte eta ikusi arte ze hirigintza garapena izango zuen, horren arabera egin beharko litzatekeela zati horretatik pasatzen den bidegorri zatia. Foru Aldundiak alegazioa ontzat eman zuela adierazi du.


Baina orain Gobernu Kontseiluak onartutako dokumentu horietan sorpresaz jaso dutela dio bidegorri horren behin betiko garapena lotuta doalako Zapategi eremuko obrari eta hori karga urbanistiko bezala jasota dagoelako, beraz, hori inoiz garatuko bada horren finantziak hori garatuko duten ekimen pribatuari dagokiolako eta ez Udalari. Udalari dagokiola dio orain momentu honetan behin behineko konponbide bat ematea, hori horrela bidegorria pintatu eta seinale bat jarriko zutela geratu ziren.

Era berean, behin betiko proiektua zein izango litzatekeen jakin gabe eta exekuzio proiektu hori idatzi gabe dagoenez, harrigarria egin zitzaizela dio jadanik ahaztuta egotea 180.000 euroko kopuru hori.

Beraz, esan bezala, erabakiak jaso zituztenean beharrezkoa ikusi zutela dio hitzarmenean kontu hauek argi adieraztea interpretazio okerrik egon ez zedin aurrera begira.

Jarraian, bihar bertan Foru Aldundian duten bileraren berri eman du.

Mirari Azurmendik hitza hartu du eta galdetzen du zati probisionalari dagokionean zergatik Foru Aldundiak berak ez duen egiten. Galdetzen du egoera probisional hori zenbat denborakoa den ze ez dela gauza bera dio 15 egun edo 2 urte, adibidez. Era beran, hemen proposatzen den soluzio probisional hori, Usurbilek garatu beharrezkoa, segurtasunaren aldetik uste dute ez dela minimo batzuen barruan sartzen.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio eremu hori garatu bitartekoa dela, hau da, denbora luzea. Hala ere, nahiz eta behin behineko soluzio bat izan hartu behar diren segurtasun neurri guztiak dituen bidegorri zatia izango dela adierazi du.

Zati probisionala Foru Aldundiak egiteari buruz, alkateak adierazi du bere garaian hitzegidakoaren arabera egin dutela errekerimendu hau, inork ulertu ez dezan zati hori Udalaren kargu doala. Hala ere, Mirarik diona biharko bileran aipatuko duela esan du.

Alkateak argitu nahi izan du beraiek hitzarmenaren erredakzioan ez dutela parte hartu.

Josune Urkolak esan du hau ez dela inongo batzordetik pasa.

Alkateak erantzun dio berez alkate errekerimendu bat zela, baina beharrezkoa ikusi dutela Udalbatzarrak ere berrestea, aholkulari juridikoak horrela gomendatuta.

Patxi Suárezek hitza hartu du eta adierazi du errekerimendua egitearekin ez dagoela ados, jakinda bihar bertan Mugikortasunarekin bilera bat dutela. Hala ere, proiektu hau Usurbilentzat oso garrantzitsua dela uste du eta aurrera joango dela, hori dela eta abstenitu egingo dela adierazi du, nahiz eta errekerimendua egitearekin ados egon ez.


Alkateak adierazi du errekerimendu honek ez duela zalantzan jartzen proiektua ez denik garrantzitsua Usurbilentzat eta erabat babesten duten proiektua dela gaineratu du. Edonola ere, interpretazio oker batetarako bide eman dezakeen semantika argitzea da nahi dena. Hitzarmenean jasotzen baita Usurbilgo Udalak 180.000 euroekin finantzatuko duela eta hori ez dela horrela dio, horko garapen pribatuari dagokion karga urbanistiko bat dela argitu du. Bestalde, gaineratu du behin betiko proiekturik eta trazaturik eduki gabe, nola jakin 180.000 euro izango direla, ez dakitela dio Foru Aldundiak kopuru hori nondik ateratzen duen.

Mirari Azurmendik adierazi du udalaren proposamena ez zaiela egokia iruditzen eta, aldiz, proiektuko aurrekontu horri modu probisional batean eragin behar dela eta iruditzen zaie askoz kudeaketa abilagoa edo mesedegarriagoa Usurbilentzat.

Alkateak argitu nahi izan du denen hobebeharrez, Usurbilgo Udalak esan zuela “etzazue egin orain obra bat gero aldatuko bada”, beti ere diru publikoaren erabilera egoki bati begira eta hori izan zela dio bi aldeek adostutakoa.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.03/2019-0008



Usurbilgo Udala

2020ko abuztuaren 28an, Usurbilgo Udalari jakinarazi zitzaizkion Foru Gobernuaren Kontseiluak 2020ko uztailaren 28an hartutako erabakiak eta dokumentuak (osoak, gabeziarik gabe), honako gai hauei buruzkoak:

1. Lasarte-Txikierdi oinezkoentzako bizikleta-bidea eraikitze proiektuaren 2. fasea (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) eta dagokion kontratazio espedientea onartzea.
2. Lasarte-Txikierdi oinezkoen eta bizikleten arteko bidea eraikitze proiektua, 2. fasea, gauzatzeko eta finantzatzeko, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalekin sinatu beharreko lankide-hitzarmena onartzea.

Diputazioko Foru Gobernuaren Kontseiluak hartutako erabakiak eta igorritako dokumentuak aztertu ostean, Alkateak, 2020ko irailaren 4an, segidan doan errekerimendua aurkeztu zuen Diputazioko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren aurrean:

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Andreak, Usurbilgo Udaleko alkate-udalburua den aldetik,

AZALTZEN DU:

2020ko abuztuaren 28an, Usurbilgo Udalari jakinarazi zitzaizkion Foru Gobernuaren Kontseiluak 2020ko uztailaren 28an hartutako erabakiak eta dokumentuak (osoak, gabeziarik gabe), honako gai hauei buruzkoak:

1. Lasarte-Txikierdi oinezkoentzako bizikleta-bidea eraikitze proiektuaren 2. fasea (2. ibilbidea: Donostia-Mutriku) eta dagokion kontratazio espedientea onartzea.
2. Lasarte-Txikierdi oinezkoen eta bizikleten arteko bidea eraikitze proiektua, 2. fasea, gauzatzeko eta finantzatzeko, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalekin sinatu beharreko lankide-hitzarmena onartzea.


Hartutako erabakietan, bi hilabeteko epea ematen da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko administrazioarekiko auzien epaitegietan, eta hilabeteko epea partikularrek, aldeztuz, aukerako berraztertze errekurtsioa jartzeko.

Administrazio publikoen arteko auzietan EZIN denez errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 44. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, **errekerimendu** hau egiten da, kontuan hartuta hurrengo:

ARRAZOIAK:

Lehenengoa.- Usurbilgo Udalak oinezkoentzako bizikleta-bidea eraikitze proiektuari egindako alegazioei dagokienez, eta alegazio horiek Foru Gobernuaren Kontseiluak hartutako erabakietan jasotzeari dagokionez

2019ko urtarrilaren 8an Mugikortasuneko eta Lurralde antolaketako Foru diputatuak urtarrilaren 2an emandako foru agindua jakinarazi zion Usurbilgo Udalari, alegazioak jartzeko hilabeteko epea emanaz.



Usurbilgo Udala

2019ko urtarrilaren 30ean argitaratu zen GAO n Lasarte-Txikiardi (II. fasea) bizikletentzako eta oinezkoentzako bide-zatia eraikitzeako proiektuaren hasierako onarpena eta jendaurreko informazioa.


Hala, Usurbilgo Udalak alegazioa ezarri zuen, besteren artean honakoa eskatuz:

“Esan beharra dago gaur egun Usurbilgo Udala tramu horri eragiten dion Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arauen Testu Bateginaren 03. Aldaketa puntuala erredaktatzen ari dela eta gune horretan jarduera ekonomikoetara bideratutako eremu berri bat aurreikusten duela.

Eremu berriak GI-3138-aren bi aldetara kokatutako lurrak hartzen ditu; batetik egun MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A. enpresarenak diren eraikuntzarik gabeko lurrak eta bestetik, Oria Ibaira ematen duten landa lurrak. Antolamendu berriak tramu horretan eremu berrirako sarbidea izango den biribilgunea barneratzen du eta ibai ertzeko lurretan parke izaera izango duen gune berdea. Hori dela-eta, hirigintza garapen hori epe laburrean egikaritutako dela aurreikusten denez, ez da egokia ikusten bide gorri zati hau Proiektu honetan jaso den moduan egikaritzea.

Ondorioz, egikaritu gabe uztea eskatzen da, eremu berriaren antolamendua finkatu eta behin betiko trazatua zein izango den jakin artean. Hala, bidegorri tramu horren egikaritzea eremuaren garapenarekin batera urbanizatzea liteke egokiena.”

Beheko irudian, egikaritu gabe uztea eskatzen den bidegorri tramua seinaltatu da gorritz.



Usurbilgo udalak ezarritako alegazioan (2019ko otsaila), Gipuzkoako Foru Aldundiari egikaritu gabe uzteko eskatzen zion bidegorri zatia.

Obra Hidraulikoen Zerbitzuko buruak eta lurzorua eta ondarea kudeatzeko zerbitzuko buruak Usurbilgo Udalak aurkeztutako alegazioei txostena egin zieten 2020ko uztailearen 16an.



Usurbilgo Udala

Eskaeraren aldeko txostena egin zuten Aldundiko teknikariek, eta honako hau adierazi zuten espresuki:

*“Por tanto, se accede a la solicitud indicada por parte del Ayuntamiento de Usurbil y se procederá a la licitación de la obra excluyendo la ejecución de un tramo del denominado Ramal Lasarte, entre el PK 0-000 a P.K 0+135, dentro del término municipal de Usurbil, con la condición de que el Ayuntamiento de Usurbil **garantice provisionalmente** la conexión del tronco de la vía ciclista-peatonal prevista, con el tramo del Ramal Lasarte entre el P.K 0-135 a P.K 0+165, dentro del término municipal de Lasarte, en condiciones de seguridad para peatones y ciclistas, hasta que, bajo la tutela municipal, se ejecute la solución definitiva mediante el desarrollo urbanístico previsto”.*

2020ko uztailaren 28an hartutako erabakian, alegazioei "azalpen-zatian aurreikusitako baldintzetan" erantzun zitzaizkien (bertan, 2020ko uztailaren 16ko txosten teknikoa aipatzen da espresuki). Era berean, onartu ziren: bizikleta-bidea eraikitzekeko proiektua, administrazio-klausulen agiria eta "Lasarte-Txikiardi (Donostia-Mutriku 2. ibilbidea) 2. fasea bizikletentzako eta oinezkoentzako bide-zatia eraikitzekeko proiektuaren obrak" esleitzeko kontratazio-espeditantea 529.115,30 euroko aurrekontuarekin eta 517.285,37 euroko balioarekin.

Hartutako erabakian, egia da Aldundiaren eta Lasarteko zatiari eragiten dien obra bakarrik esleitzen dela, baina akordioaren azalpenean honako hau adierazten da:

“Usurbilgo Udalak, aldiz, proiektuan jasotako tokiko konexioak bere gain hartzen dituzenez, Usurbil zatiko obraren kostu osoa finantzatu du, gehienez 180.061,59 eurora arte: Lasarte PK 0+000tik 0+135era bitarteko adarra, bai orain aurreikusitako exekuzioari bai behin betikoari jarraipena emateko, idatzitako proiektuaren arabera.”

Era berean, lankidetzaren hitzarmena onartzeko akordioan, hitzarmenaren azalpenean, berriz ere adierazten da Usurbilgo Udalak bere gain hartzen duela bere obraren exekuzio materiala, eta Usurbil zatiko dagokion kostuaren % 100 finantzatu duela 180.061,59 euroko aurrekontuarekin.

Hitzarmenaren bigarren klausulan Usurbilgo Udalak Usurbil zatiaren behin betiko proiektua gauzatzeko konpromisoa arautzen da: Lasarte adarra PK 0+000/0+135 Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proiektuaren arabera, eta hirugarren klausulan zehazten da Usurbilgo Udalak obraren % 100 finantzatu beharko duela.

Azken batean, azpimarratzen dugu Usurbilgo Udalak hasieran onetsitako proiektuari egindako alegazioa eta baiespena – 2020ko uztailaren 16an egindako txosten teknikoan oinarrituta – ez direla behar bezala jasotzen hartutako erabakietan, eta interpretazio-arazoak eragin ditzakeela Foru Aldundiak proposatutako hitzarmena betetzeari dagokionez.

Bigarrena.- Usurbilgo Udalari dagokion betebeharrak zehaztea eta Foru Aldundiak onartutako hitzarmenak jaso beharko duena



Usurbilgo Udala

Lasarte-Txikiardi bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektuari egindako alegazioetan adierazi zen bezala, Usurbilgo Udala, Arau Subsidiarioen Testu Bategineko A-78 (TE) Zapategi eremuaren aldaketa puntualaren espedientea bultzatzen ari da.

2019ko martxoaren 28an Usurbilgo Udalbatza-Plenoak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala (03 aldaketa) haseraz onartu zuen.


Gaur egun, dokumentua izapidetzen ari da. 2019ko urriaren 31ean behin behingo onespena eman zitzaion eta une honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak eta Bide Azpiegitura Sailak, COTPV-EAELAB-ek eta Administrazio Hidraulikoek ezarritako baldintzak aintzat hartuta jarraian azaltzen den irudian jasotako antolamendua barneratzen du dokumentuak.



Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala (03 aldaketa). Behin behingo onespena. Plano gainjarria.

Bertan ikus daitekeen bezala, Geltoki kalean biribilgunea eta bidegorria ezarri dira. Bidegorria, Usurbilgo tramuan, kalearen Oria ibai alderako espaloi alboan irudian jasotako trazatuarekin.

Edonola, **dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onesten duenean ezagutuko da behin betiko antolamendua eta baita bidegorriaren behin betiko trazatua ere.**



Usurbilgo Udala

Aldaketa-espeditu horretan, Usurbilgo zatian, biribilgune bat eta bidegorria aurreikusi dira, Foru Aldundiak onartutako Proiektuaz bestelako proposamen batekin, bai trazatuan, bai obraren aurrekontuan. Gainera, finantzaketari dagokionez, zati hori eremuaren hirigintza-karga gisa aurreikusita dago, izan ere, haren egikaritza eremu horretako hirigintza eragileei dagokie, pribatuei, urbanizazio lanen baitan.

Beraz, Diputatuen Kontseiluak 2020ko uztailaren 28an hartutako akordioan jasotzen dena, Usurbilgo tramuauren kostua, 180.061,59eurokoa, Usurbilgo Udalak asumituko duela esanaz, ez da zuzena. Ez da zuzena, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Proiektuari dagokion aurrekontua delako batetik (egikarituko ez dena tramu horretan) eta eremuaren garapenarekin egikarituko den bidegorri trazatuaren Urbanizazio Proiektua oraindik erredaktatu eta onartu gabe dagoenez, kostu horren zenbatekoa ezagutzen ez delako bestetik. Edonola, aurreko atalean esan bezala, kostu hori finantzatzea ez dagokio Usurbilgo Udalari.

Ondorioz, Foru Aldundiak 2020ko uztailaren 28an onartutako hitzarmena aztertuta, Usurbilgo Udalak sinatu dezan, honako aldaketa hauek proposatzen dira:

1.- Diputatuen Kontseiluaren akordioaren azalpen-zatiaren 2. orrialdean, 3. paragrafoan, paragrafo hau *kentzea*:

Usurbilgo udalak, bere aldetik, bere gain hartuko du bere obraren exekuzio materiala, eta Usurbil zatiari dagokion kostuaren %100 finantzatuko du 180.061,59 euroko aurrekontuarekin (adarra Lasarte 0+000 pk-tik 0+135 bitartean, bai orain aurreikusitako exekuzioari bai behin betikoari jarraipena emateko, idatzitako proiektuaren arabera).

El Ayuntamiento de Usurbil, por su parte, que asume la ejecución materia de su obra, financiará el 100% del coste correspondiente al Tramo Usurbil con un presupuesto de 180.061,59 euros (Ramal Lasarte pk 0+000 a 0+135, tanto para dar continuidad a la ejecución ahora prevista como a la definitiva según el proyecto redactado).

2.- Kendu den paragrafoaren ordez honako hau jartzea:

“Usurbilgo Udala Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-78 (TE) Zapategi eremuko aldaketa puntualaren espeditu izapidetzen ari da, zeinaren antolamenduak eragiten baitio “USURBIL ZATIARI. Lasarte Adarra, 0+000 pk-tik 0+135era (L = 135)”. Hori dela eta, eremuaren hirigintza-garapenaren ondorioz obra behin betiko egiten ez den arte, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du behin-behineko irtenbide bat gauzatzeko, bizikletentzako eta oinezkoentzako aurreikusitako bidearen enberraren eta Lasarteko Adarraren arteko bide-

“El Ayuntamiento de Usurbil está tramitando el expediente de Modificación Puntual del área A-78 (TE) Zapategi del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias, cuya ordenación afecta al “TRAMO USURBIL. Ramal Lasarte pk 0+000 a 0+135 (L=135)”. Por ello, hasta que no se ejecute la obra de forma definitiva, como consecuencia del desarrollo urbanístico del ámbito, el Ayuntamiento de Usurbil se compromete a ejecutar una solución provisional que garantice la conexión del tronco de la vía ciclista-peatonal prevista, con el tramo del Ramal



Usurbilgo Udala

zatiaren arteko lotura bermatzea, 0+135 PKtik 0+165 PKra”

Behin behineko soluzio hau, gaur egun Geltoki kalean Michelingo lursail aldera dagoen espaloian bertan arraien margoketa eta seinale baten bidez bizikletentzako bidea ezartzea izango da oinezkoen eta bizikleten bateragarritasun izaerarekin.

Lasarte entre el P.K 0+135 a P.K 0+165.”

Esta solución provisional consistirá en definir, en la acera existente entre la Calle Geltoki y la parcela de Michelin, de un carril para bicicletas, mediante la delimitación del trazado con pintura y una señal, con carácter de compatibilidad para peatones y bicis.

3.- Hitzarmenean, "aldeen betebeharrak" izeneko bigarren klausulari dagokionez, honela idaztea proposatzen da:

“2.1.

*Usurbilgo zatiari dagokionez, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du **behin-behineko irtenbide bat** gauzatzeko, oinezkoen eta txirindularien jarraitutasun segurua bermatzeko foru-zatiaren amaieraren eta Lasarte-Oriako Adarrarekiko lotunearen artean hitzarmen honetan aipatutako lanak amaitzen diren unetik bertatik.*

Era berean, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du Usurbilgo zatiaren behin betiko konponbidearen egikaritzea bultzatu eta kudeatzeko, A-78 (TE) Zapategi eremuaren hirigintza-kudeaketaren bidez eta aipatutako A-78 (TE) Zapategi eremuaren aldaketa puntualaren espedientea behin betiko onartzearen ondoriozko antolamenduaren arabera, hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta.”

“2.1.

*Respecto al Tramo Usurbil, el Ayuntamiento de Usurbil se compromete a ejecutar **una solución provisional** que garantice la continuidad segura de peatones y ciclistas entre el final del tramo foral y la conexión al Ramal a Lasarte-Oria desde la misma finalización de los trabajos referidos en este convenio*

Asimismo, el Ayuntamiento de Usurbil se compromete a impulsar y gestionar la ejecución de la solución definitiva del Tramo Usurbil, mediante la gestión urbanística del Área A-78 (TE) Zapategi y en virtud de la ordenación que resulte de la aprobación definitiva del expediente de Modificación Puntual de la mencionada área A-78 (TE) Zapategi, todo ello en coordinación con la Diputación Foral de Gipuzkoa.”

4.- Hitzarmenean, "Lanen gauzatzearen eta zuzendaritzaren finantzazioa" hirugarren klausulari dagokionez, 3.4 puntuaren hurrengo idazketa hau proposatzen da:



Usurbilgo Udala

"3.4.- Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du Usurbil tartean (Lasarte adarra, 0+000 kp-tik 0+135era) egin behar diren behin-behineko obreren kostuaren % 100 finantzatzeko, ALDUNDIA eta LASARTE izeneko zatiei jarraipena emateko Behin betiko konponbidea gauza dadin, hirigintza aldetik, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-78 (TE) Zapategi eremuan aurreikusitako garapena bultzatu eta kudeatu, hitzarmen-sistemaren bidez."

"3.4.- El Ayuntamiento de Usurbil se compromete a financiar el 100% del costo de las obras provisionales que deban ejecutarse en el Tramo Usurbil: ramal Lasarte pk 0+000 a 0+135, para dar continuidad a los tramos denominados DIPUTACIÓN y LASARTE, y a velar y gestionar urbanísticamente para que se ejecute la solución definitiva mediante el desarrollo previsto en el Área A-78 (TE) Zapategi del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias por el sistema de concertación"

Horregatik guztiagatik, honako hau **ESKATZEN DUT**, idazki hau aurkeztutzat emanda, onar dadila, eta, egin beharreko izapideak egin ondoren, Usurbilgo Udalak Foru Gobernu Kontseiluari egindako errekerimendua onar dadila, eta, ondorioz, idazki honen bigarren arrazoian Foru Gobernuaren Kontseiluak 2020ko uztailaren 28ko erabakiaren bidez onartua Lasarte-Txikierdi bizikletentzako eta oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektuaren 2. Fasea (Esp.: 2020/00351) gauzatzeko eta finantzatzeko Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalekin sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmenean **proposatutako aldaketak egitea adostea.**

Usurbil, 2020ko irailaren 4an
ALKATEAK
Agurtzane Salaberrieta Mesa

Guzti hau kontutan izanik, 2020ko irailaren 4an, Diputazioko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren aurrean tartekatutako errekerimendua berrestea erabaki du Udalbatzarrak gehiengoz:


ERABAKIA

LEHENA: Lasarte-Txikierdi bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko proiektuaren 2. fasea dela eta, 2020ko irailaren 4an, Diputazioko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren aurrean Alkateak tartekatutako errekerimendua berrestea."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Kontrako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.



Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOAK EMATEKO ESKUMENA ESKUORDETZEN DUEN AKORDIONAREN INDARRALDIA LUZATZEA 2020-2021 IKASTURTEAN.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez puntu hau tratatzea erabaki dute.

Jarraian, Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu. Usurbilgo Udalak 2015-16 ikasturteaz geroztik Oinarrizko Lanbide Heziketako bi modulu eskuordetuta dituela esan du. Eskuordetza horrek bost ikasturteko iraupena zuela dio eta pasa den ikasturtea izan zela azkena. Hori horrela, Eusko Jaurlaritza eskuordetza berri bat martxan jartzeko lanean ari zela baina martxoan sortutako egoerarekin ez diola denborarik eman tramitatzeke eta, ondorioz, proposatu dutena izan da sinatuta zegoen eskuordetza hori beste urtebetez luzatzeko aukera.

Josune Urkolak aipatu du aurrekontuan 2020 eta 2021 agertzen direla eta galdetzen du ea horrek 2020-21 ikasturteari erreferentzia egiten dion.

Beñat Larrañagak erantzun dio baietz, 2020an irailetik hasita abendurarte eta 2021ean gainontzeko ikasturtea.


Beñatek gaineratu du, kontutan izanda eskuordetza bat dela eta hezkuntza ez dela udal kompetentzia bat, Usurbildik adierazi zutela udal kompetentzia bat izan gabe Udalari diru bat kostatzen zaiola. Salatu eta erreklamatu zutena izan zen ezin zuela horrela izan, hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren eskumen bat izanik %100ean finantzatuta izan beharko lukeela; are gehiago egoera honetan, garbitasuna areagotu behar izan baita, hainbat material eskura jarri, pantailak, maskarak, etab.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“HE. 07/2020-0127

AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak eman ahal izateko eskuordetzeko erabaki – proposamena 2015eko uztailaren 27ko gobernu-kontseiluan akordatzen da (EXP. 2015/00585) (A/20150179).



Usurbilgo Udala

Proposamen hau Usurbilgo Udalak 2015eko irailaren 10ean ospatutako Udalbatzarraren ezohiko bilkuran onartu zuen eta Otsailaren 23ko 28/2016 Dekretuaren eta abenduaren 7ko 210/2016 Dekretuaren bitartez sortu ziren Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak eman ahal izateko EAEko titularidade munizipaleko ikastetxe publikoak, 2015-2016 ko ikastarotik aurrera efektua izan duena.

Eskuordetze akordioak bost urtetako iraupena izan du: 2015eko irailaren 1ean hasi eta 2020ko abuztuaren 31an amaitu da.

GAUR EGUNGO EGOERA BEREZIA (COVID-19)

Eusko Jaurlaritzak hurrengo 5 urteetarako (2020 – 2025) eskumena eskuordetzeko dekretua izapidetzen hasia ezinezkoa izan du, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak eten egin direlako, Covid-19ko alarma egoera dela eta.

2020ko uztailaren 28an ospatutako Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluan hartutako akordioaren arabera,

-Proposamena 2015eko uztailaren 27ko gobernu-kontseiluaren akordioaren indarraldia urte betez luzatzea da. Erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerriek oinarrizko lanbide heziketako zikloak emateko eskumena urte betez luzatuko da. Hain zuzen ere 2020 – 2021 ikasturtea (2020ko iraila – 2021eko abuztua). (EXP. 2020/00675).

-Usurbilgo Udalari baimendutako heziketa talde eta zikloetan ondorengo kopuru hauek ematea:

- Oinarrizko zikloa IIe – apainketa eta estetika arloa.
- Oinarrizko zikloa Sukaldaritza eta jatetxea arloa.

	1º maila		2. maila		Guztira
2020	2	62.258,15€	2	48.401,52€	110.659,67€
2021	2	127.006,63€	2	98.739,10€	225.745,73€

-Eskumenaren luzapen honek efektua izan dezan Oinarrizko Lanbide heziketako ikastetxeetako titular diren udalerriek onartu beharko dute.

Hau guztia horrela, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENENGOA: Usurbilen Oinarrizko Lanbide Heziketa eskaintzeko Eusko Jaurlaritzaren eskumena eskuordetzeko 2015eko uztailaren 27ko akordioaren luzapen proposamena onartzea.

BIGARRENA: Eskumenaren eskuordetzea ikasturte batez onartzea: 2020 – 2021.

HIRUGARRENA: Akordio honen onarpenaren berri Eusko Jaurlaritzari ematea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- USURBILGO UDALA EUSKARALDIRA ATXIKITZEA.

Oskar Santamariak irizpena irakurri du.

Plenoaren ondoren udaletxe aurrean argazki bat ateratzera gonbidatu ditu gainontzeko zinegotziak.

Alkateak gaineratu du Euskaraldiari babesa emateaz haratago, entitate bezala inplikazio bat eta konpromiso bat ere eduki behar zutela ikusten zuten eta hortan ari direla zehaztu du, ariguneak zeintzuk izan daitezkeen ikusten.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:


“KE.16/2020-0161

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

2018an egin zen lehen aldiz ariketa, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz*; orduan norbanakoengan jarri zen fokua eta Usurbilen ia 1400 herritar izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin ahobizi eta belarriprest moduan ariketan parte hartu zutenak.

2020an burutuko da bigarren edizioa, eta, oraingoan, entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zaigu, geure eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urrats berriak emateko eta Udaleko langileen eta kideen parte-hartzea sustatzeko eta babesteko.

Entitateen parte-hartzea bertan sortuko diren ariguneen bidez egingo da. Ariguneak, edo *euskaraz aritzeko guneak*, uneoro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten guneak dira, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan. Hala, bi motako ariguneak bereizten dira:



Usurbilgo Udala

- Kanpo ariguneak: Udalaren kasuan, jendaurreko administrazio atalak eta jendaurreko lanpostuak dira. Udalak horietan herritarraren hizkuntza hautua BETI errespetatu behar duenez, horrek ez luke aparteko lanik zertan ekarri: 15 egun horietan postu horiek guztiak ariguneen bereizgarriarekin identifikatu eta egun horietarako bereziki jarraibide batzuk eman.
- Barne ariguneak: Udalaren baitan dinamika propioa duten eta kide guztiek euskara ulertzen duten taldeak izango dira. Askotarikoak izan daitezke: administrazio atalak, udal bulegoak, lan batzordeak, lantaldeak... Arigune bat abian jartzeko, kide guztien edo gehienen adostasuna behar da.

Udalak izena emateak, hortaz, honako hau dakar:

- Euskaraldiaren proposamena aztertzea eta Udalak prozesuan sartzeko erabakia hartzea.
- Arigune izan daitezkeen taldeak identifikatzea.
- Ariketa egitea adostea, ariguneetako kideekin.
- Entitateak ariketan izena ematea.
- Ariketa egitea, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra
- Ariketaren balorazioa egitea, aurrera begira jarrita.

Entitateek izena emateko epea ireki da dagoeneko eta, antolatzaileek esan digutenaren arabera, komeni da ahalik eta lasterren egitea, prestaketa lan horiek guztiak ondo eta lasai egiteko.

Usurbilgo Udalak hasiera-hasieratik bat egin du ekimen honekin eta interesgarritzat jotzen du oraingoan ere parte hartzea.

Hori horrela, Antolakuntza Batzordeak, 2020ko irailaren 21ean egindako bilkuran, aho batez (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Josune Urkola eta Patxi Suárez) egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

- Usurbilgo Udalak, entitate moduan Euskaraldian izena emateko proposamena ontzat ematea, eta izena emateko prozesua abiatzea.
- Horren berri ematea Euskaraldiaren antolatzaileei.
- Kanpo zein barne ariguneak izan daitezkeen guneak eta taldeak identifikatzea.
- Talde horietako kideei ariketan parte hartzeko proposamena egitea.
- Hau guztia egin ondoren, entitate moduan, Euskaraldian izena ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- MOZIOA: URRIAK 17, POBREZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Itziar Basterrikak mozioa irakurri du.

Josune Urkolak adierazi du egia dela mozio hau Antolakuntza batzordean landu zutela, baina beraiek egun horretan bertan iluntzean elkartu zirela eta Andoni Atxegari pasa dio hitza azalpenak eman ditzan.

Andoni Atxegak adierazi du adierazpenean agertzen diren gauzekin ados daudela, baina testu horretan pobrezia murrizketarekin konpromisoa eskatzen dela eta beraien ustez izan behar du errotik desagerrarazteko konpromisoa. Bi konpromisoen artean alde handi bat dagoela gaineratu du.

Idatzian gizarte politikan sakontzeko neurriak proposatzen dira eta beraien ustez babesa ezinbestekoa da baina erantzukizun politikoa haratago doala uste dute. Egoera ekonomikoaren hobekuntza bultzatu eta enplegu sendoak egotea duintasunez bizitzeko aukera bermatzeko ezinbestekoak direla uste dute. Azken hau mozioan faltan botatzen dutela dio, beraz, idatzia denen artean landu eta hurrengo batetarako mahai gainean uztea proposatzen dute.

Alkateak adierazi du puntu hau mahai gainean utzi eta adostasun politiko handiagoa lortzeko gai badira, bere aldetik ez duela eragozpenik ikusten. Hala ere, ñabardura bat egin du, uste du mozioaren funtsa dela pobrezia errotik aldatzea, esaten baitute arazo publiko bat eta politikoa dela.

Patxi Suárezek adierazi du adostasun handiagoa lortzen badute, bere aldetik ere arazorik ez dagoela mozioa mahai gainean uzteko.

Guztien adostasunarekin mozioa mahai gainean geratu da.

7.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: MORIA PERTSONA ERREFUXIATUEN EREMUAN GERTATUTAKO SUTEA.

Aroa Etxeburuak mozioaren testua irakurri du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik diktaminatuta datorren adierazpena aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

Badira bost urte Morian, Grezian, pertsona errefuxiatuentzako eremua sortu zenetik. Hasieran 3.000 pertsonentzat sortutako eremu hau kontrolik gabe hazi eta hazi da (gaur egun 12.000 lagun ditu), Europak beste alde batera begiratu duen bitartean eta estatuek pertsona errefuxiatuak artatzeko konpromisoa (2015 eta 2016 artean sinatutako banaketa kupoa) alboratu duten bitartean.

Hirugarren sektoreko eragileek eta gobernuz kanpoko erakundeek behin eta berriro salatu dute Moiran bizirauten duten pertsonen baliabide falta. Mundu mailako osasun alarma egoerak eta azkenaldiko eraso ultrasarduak bizi baldintza horiek zaildu egin dituzte.

Azkenean, Moria lehertu da. Lau sute txikirekin hasi zena sute erraldoi bihurtu zen, Europako errefuxiatuen esparrurik handiena errez. Atzoko datuen arabera, 35 pertsona errefuxiatuen positiboa baieztatu zen, COVID19 birusaz, eta beste 125 pertsona berrogeialdi hertsia egiten ari ziren. Horrelako eremu batean ezinezkoa da segurtasun neurriak aurrera eraman ahal izatea, ezta gutxienezko distantzia mantentzea ere, higiene neurriak bermatzea...

Sutea dela eta, bertako biztanle guztiek ihes egin behar izan dute. Batzuek zuten gutxia gainean hartzeko abagunea izan dute; beste batzuek, aldiz, zeuden bezala alde egin dute.

Orain, 12.000 lagunetik gora sakabanatuta daude Moria inguruan. Jendea sakabanatuta dago, haurrak galduta daude beraien gurasoengatik galdezka, lagundu gabeko adin txikiko haurrak identifikatzen saiatzen ari dira, ur eskasia dago eta etengabe hori eskatzen ari dira.

Elkarte eta erakundeak egoeraren mapeoa egiten ari dira, pertsona errefuxiatuak non pilatu diren aztertzen eta janaria nola banatu eta haiengana nola heldu baloratzen. Lan hori egiten ari direnen artean, Zaporeakeko kideak daude, gaur egun zerbitzu oinarritzko bat ematen dauden erakunde bakanetakoak direlarik.

Horiek horrela, batzarkideek aho batez honako Adierazpen Instituzionala onartu dute:

1. Usurbilgo Udalak "harrera hiritzat" du bere burua, eta elkartasuna adierazi nahi die haien bizilekueetatik alde egin beharrean diren pertsonen. Eta gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita konpromiso bera duten beste erakundeekin lan egitekoa ere.
2. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat, iheslariak hartzeko eta integratzeko harrera planari eusteko konpromisoa berresten du, eta xede horretarako estrategiak, programak eta baliabideak zehaztuko ditu, baita erakundeen eta gizarte antolakundeen arteko elkarlanerako esparruak ere.
3. Usurbilgo Udalak Espainiako Gobernuari eta Europako erakundeei eskatzen die har ditzatela premiazko neurriak krisi humanitario honi erantzun aktiboa emateko, elkartasuna eta justizia oinarrian direla, eta politika bateratu bat egin dezatela immigrazio eta asilo arloan, pertsonen lehentasuna emanaz eta giza eskubideen zaintza bermatuz. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktima diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzatela ere eskatzen die.



Usurbilgo Udala

4. Usurbilgo Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari Moriako tragediaren aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezatela eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzatela eskatzen die.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak Musika Eskolaren inguruko azalpenak eman ditu. Aurreikusten dituzten datak dira datorren astean Moyuak obra bukatuko duela, urriko lehen astean garbiketa sakon bat egingo litzateke ondoren altzariak-eta sartzen joateko eta urriaren hirugarren aste inguruan klaseak bertan ematen hasiko lirateke.

Bestalde, urriaren 1ean obra bisita bat egingo dutela esan du Zumarteko irakasleekin batera eta gainontzeko udal taldeei ere bisita horretara etortzeko gonbita luzatu die.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:56etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.